

ARTAZUKO BARRIAK

2016/12/2

Maribel Gorostizagoiza eta Altunoste baserria

Maribel Gorostizagoiza



Lehengo egunean, zemendiaren 17an, Artazugoikoko ikasleok Areatzara joan ginan bizkaieraz ondo be ondo egiten dauen andra bati entzuten: Maribel Gorostizagoizari. Eguraldiaren ganean berba egingo ebalakoan joan ginan, baina eguraldia ez eze, bere bizitzaren gorabeherak be kontau euskuzan. Harrigarria benetan andrearen argitasuna eta jarioa ordubetez berba egiteko 50 ezezagunen aurrean!

I. Kronika sorta

Pasa dan egunean Areatza herrira joan ginan, eta han Maribel Gorostizagoizari entzun geuntsan. Maribel ezaguna da goizetan Euskadi Irratian berba egiten dauelako. Arratiako eguraldiaren barri emoten dauen bitartean, kontu txikiak be kontetan dauz.

Ahozkotasunean ikasi doguzan erizpide guztiak berak xalo-xalo erakutsi euskuzan bere berbaldian: hiztegi ondo aberatsa erabili eban, diskurtso ordenatua eta sano ulergarria izan zan.

Gazte denborako kontuak eta baserriko bizimodu gogorraren gorabeherak kontau ebazan. Kontu politikoak be kontau ebazan: diktadura sasoian ezin zirala errotak erabili, eta ingurukoak zelan antolatzen ziran auzo-lanean gauero auzoko baten garia edo artoa ehoteko.

Bera ikusita, gatxa zan sinestea 76 urte eukazala. Lehenengo, bera jaiotako baserriaren ganean berba egin euskun. Zelangoa izan zan bere gaztaroa: eskolara hamabi urtera arte (masterra!) , etxeko beharrak –erropen garbikuzia, ganaduari jaten emon, bedarra ebagi, esnea etxerik etxe banandu...-.

Ezkondu zanean herrira joan zan pisu batera biziten eta han ito egiten zanez, komentuko beheko plantan emon eutsien biziteko aukerea: “demandadore” beharra eukan, mojen errekaduen kargua eukan, komentu ingurua jagon eta txukun eukitea be bai.

Andreari jatorra, bere edaderako aurreratua, baikorra... iritzi geuntsan.

Labur egin jakun berbaldia eta inpresino onagaz urten genduan.

II. Kronika sorta Altunoste baserria

Kafea hartu ostean Altunoste baserrirantz joan ginan; han gaur egungo baserritarrak zelan bizi diran ikusi genduan. Talde bi egin ostean, bata, gurea, kortara joan zan. Kortan ardiak zelan bizi diran ikusi genduan. Hango azalpenak amaituta, gaztaiaren gorabeherak ezagutu genduzan. Amaitzeko, gaztaia dastatzeko aukerea izan genduan, eta gaztaizaleok, erosteko aukerea be.

Goiz erdian, Maribelen berbaldia entzun eta gero, Altunoste baserrira joan ginan. Han Julianegaz eta Emiliagaz berba egin genduan. Julianek ardiak erakutsi euskuzan, eta gaztaia probetako emon be bai. Emiliaren gaztaia sano gozo egoan. Eguraldi ederra euki genduan. Parajea be itzela!



Goiz erdian kafea hartu ostean, Barazarrerantza abiatu ginan, handik Altunoste baserrira joateko. Bertan Julianek kortea eta ardiak erakutsi euskuzan. Bere andreak, Emiliak, gaztaia zelan egiten daben azaldu euskun. Aurtengo Bizkaiko gaztai-lehiaketea irabazi dabe eta horrek indarra emon deutsie aurrera egiteko. Azalpenak amaitu eta gero, gaztaia dastatu be egin genduan, tzakolinagaz lagunduta.

Goiz erdian, Arratia haraneko herri polit haretan kafea hartu bitartean, Dimako Altunoste gaztaitegirako espedizinoa antolatu genduan, ahalik eta auto gitxien erabilteko.

Han goian, Gorbeia eta Anboto bitarteko leku itzelean, Emilia eta Julian zain genduzan. Julianek sano argi eta adoretu azaldu euskuzan ardi-kontuak eta artzainen bizimodua. Emiliaren txokoa gaztaitegia zan eta pausuz pausu gaztaia zelan egin erakutsi euskun, horman aurtengo Bizkaiko gaztairik onenaren txapela eskegita eukala. Baina, erakutsi ez eze, dastatu be egin genduan giro ederrean. Txakolina eta gaztaia gozatuz konturatu ginan eskolarik onena bizitza dala.



Kafe goxo, bero eta bizigarria hartu ostean, autoak ondo beteta Barazarren gora abiatu ginan, begiak alde batera eta bestera; batean Gorbeiako gurutzeta eta bestean baso zabala ikusiz, Barazarrera heldu ginan.

Handik Altunoste baserrirako bidea hartu genduan, han egozan gure zain Emilia eta Julian. Bi taldetan banatu ginan; batzuk kortara eta besteak gaztandegira. Kortara joan ginanok hainbat ardi, hiru behi eta laztan gurean ebilen txakur txiki bat ikusi genduzan. Bitartean ardi zaintza eta jestearen ganeko azalpenak entzun genduzan.

Kortatik urten eta gaztandegira sartu ginan. Emiliak gaztaia zelan egiten daben azaldu euskun. Eta goiza ezin hobeto amaitzeko, gaztaia eta txakolina dastatzeko aukerea eduki genduan.